



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2013KO AZAROAREN 29KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2013.11.29.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespena.

2.-Zinegotzi berrien kargua hartzea.

3.-Herriko Etxean Espainiako bandera ipintzeko jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

4.-Herriko Etxean jarrita dagoen "Euskal presoak eta iheslariak etxera" pankarta kentzeko jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

5.-Udal eraikinen garbiketa.

6.-Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunerako erakunde adierazpenerako proposamena.

7.-Estitxu Iparragirre Madariaga andrea: medikuaren etxeko biltegia garbitu eta erabiltzeko eskaera.

8.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa; behin betiko onespena.

9.-ADEMNA: diru laguntza eskaera.

10.-Bortzirriak pilota elkarte: diru laguntza esakera.

11.- 2012ko abenduko aparteko osagarria anulatzeko aferari buruz hartutako ebazpena.

12.-Alkatearen ebazpenak.

13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko urriaren 29an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-ZINEGOTZI BERRIEN KARGUA HARTZEA.

Hauteskunde Batzorde Orokorrek bidali ditu Mikel Leiza Etxeberria jauna eta Teodoro Pikabea Zubieta jaunaren zinegotzi kredentzialak.

Hauek Ainara Maia Almandoz andrea eta Imanol Artola Guridi jaunaren ordezkari proposatuak izan dira zinegotzi kargurako.

Bi zinegotziek Konstituzioa beteko dutela zin egin edo hitza eman dute modu honetan, Idazkariak legeak agintzen duen galdera hau egin ondoren:

Zin edo promes egiten duzue zinegotzi karguaren betebeharrak erregearekiko leialtasunez zintzo beteko duzuela eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duzuela?

-Mikel Leiza Etxeberria jn., promes egin du.

-Teodoro Picabea Zubieta jn., promes egin du.

Ondorioz, zinegotzi kargua hartu dute.

3.-HERRIKO ETXEAN ESPAINAKO BANDERA IPINTZEKO JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA.

2013ko irailaren 19an Gobernuak Ordezkaritzak idatzi bat bidali zuen Espainiako bandera hilabeteko epean jartzeko errekerimendua emanez.

Idazkariak aditzera eman du 2013ko azaroaren 26an hartu dela Estatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Espainiako bandera ez jartzeagatik. Hogeiei eguneko epea ematen da espedientea igortzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herri batzarra egitea abenduaren 5ean gaia eztabaidatzeko herritarrekin.

4.-HERRIKO ETXEAN JARRITA DAGOEN "EUSKAL PRESOK ETA IHESLARIAK ETXERA" PANKARTA KENTZEKO JARRITAKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA.

Idazkariak aditzera eman du 2013ko azaroaren 20an hartu dela Estatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Herriko Etxeko balkoian "Euskal presoak eta iheslariak etxera" pankarta jartzeagatik. Hogeiei eguneko epea ematen da espedientea igortzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herri batzarra egitea abenduaren 5ean gaia eztabaidatzeko herritarrekin.

5.-UDAL ERAIKINEN GARBIKETA.

2013. urterako udal eraikinen garbitasuna egiteko bi pertsona kontratatzea erabaki zen: aldi baterako, 3 orduz lan egiteko bakoitzak eta egunero. Ikusirik modu honetan garbiketa hobeto egin eta antolatzen dela.

Ikusirik Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 233/2012 ebazpena, otsailaren 23koa, interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeke toki entitateendako diru-laguntzak arautzen dituen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2260/2012 eta 1411/2013 ebazpenen bidez aldatua.

Kontuan hartuz Arantzako Udalak diru laguntza eskatu duela garbitasun lanak egiteko bi pertsona kontratatzeke.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) 2014. urterako udal eraikinen garbitasuna egiteko bi pertsona kontratatzea: aldi baterako, 3 orduz lan egiteko bakoitzak eta egunero.
- 2) Deialdiaren oinarriak onartzea.
- 3) Deialdi publikoa egitea.

6.-EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNERAKO ERAKUNDE ADIERAZPENEARAKO PROPOSAMENA.

Ikusirik emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunerako erakunde adierazpenerako hartutako proposamena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea.
- 2) Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea, jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokultural guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.
- 3) Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea eta/edo baliabideekin indartzea: ahalduntzeko eskolak, emakume-etxeak eta haiek sarean antolatzea. Hau da, emakumeei bultzada ematea, banaka zein taldeka, desberdintasunei, kalteberatasunari eta indarkeria matxistari aurre egiteko behar dituzten tresnak eskura eduki ditzaten.
- 4) Bertze udalerrri batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboetan, Gipuzkoa Berdinbidean programan adibidez. Programa horien arabera, udalek dirua jarri behar dute emakumeen aurkako (eta bereziki emakume gazteen aurkako) indarkeria prebenitzeko jardunak garatzeko, gizonetik elkarlana bultzatzeko, adierazpen honetan adierazitakoaren ildo beretik, eta ahalduntzeko eskolak abian jartzeko.
- 5) Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lan-prozesuak (Beldur barik programa adibidez) baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea.
- 6) Lan kolektiboa abian jartzea eta/edo indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten diote emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo lokal edo mankomunatuaren esparruan.
- 7) Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume taldeentzako tokiko arreta-zerbitzuak eratzea edo berdefinitzea, indarkeria-adierazpen desberdineei eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen premia eta interes desberdineei erantzuteko.
- 8) Azkenik, mugimendi feministak egun horretarako antolatutako jarduera eta mobilizazio guztiekin bat egiteko deia egin nahi dugu. Egundorretan kalera irten behar dugu, eta emakume guztiok mota guztietako indarkeria matxistatik aske izan arte borrokan jarraituko dugula oihukatu.

7.-ESTITXU IPARRAGIRRE MADARIAGA ANDREA: MEDIKUAREN ETXEKO BILTEGIA GARBITU ETA ERABILTZEKO ESKAERA.

Ikusirik Estitxu Iparragirre Madariaga andreak aurkeztutako idatzia, medikuaren etxeko garajea txukundu, traste zaharrak bota eta bere kotxea sartzeko baimena eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Estitxu Iparragirre Madariaga andreari jakinaraztea momentuz ezin dela bere eskaera onartu herriko tresnak gordetzeko lekua behar delakoz, adibidez txozna gordetzeko.

8.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA: BEHIN BETIKO ONESPENA.

Arantzako udalak, 2013ko irailaren 5ean egindako bileran, erabaki zuen Arantzako Arau Subsidiarioko ordenantzaren 39. artikulua aldaketa hasiera batez onartzea eta espedientea jendaurrean jartzea hilabete batez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkezteko.

Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko irailaren 20an, herriko taulan jarri zen eta Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarietan ere argitaratu zen..

Jendaurrean egindako epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 81. artikulua jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Behin betikoz onartzea Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.

2) Espedientea Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentura bidaltzea aldaketa honen berri emanez.

9.-ADEMNA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik ADEMNAk (Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteak) aurkeztutako diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2014.urrekontuaren kargura Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren elkarteari 200,00 euroko diru laguntza ematea.

10.-BORTZIRIAK PILOTA ELKARTEA: DIRU LAGUNTZA ESAKERA.

Ikusirik Bortziriak Pilota Elkartek aurkeztutako diru laguntza eskaera 2014ko denboraldirako.

Kontuan hartuz elkarte horretan herriko ume eta gazteek ere sartuak daudela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2014ko aurrekontuan 300,00 euroko partida aurreikustea herriko pilotarien beharrei zuzendua eta sobratzen bada Bortziriak Pilota Elkarteari ematea.

11.- 2012KO ABENDUKO APARTEKO OSAGARRIA ANULATZEKO AFERARI BURUZ HARTUTAKO EBAZPENA.

2013ko urriaren 29an egindako bileran jakinarazi zen Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzak, 2012ko abenduko osagarria ordaintzeko akordioa anulatzeko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuela.

Espedientea eta behar ziren guztiak igorri ondoren, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epategiak 5 eguneko epea eman du alegazioak egiteko prozedura bertan behera utzi aurretik, Nafarroako Parlamentuak 20/2012 Errege Dekretu Legearen 2. artikulua aurka jarritako 5736-2012 zenbaki duen konstituziokontarakotasuneko errekurtsoa ebatzi arte.



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Abokatuak alegazioak aurkeztu ditu eta epaileak bertan behera uztea espero da, bertze hainbertze kasuetan bezala.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 76tik 80. arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

14.-2014KO AURREKONTUAK.

Zinegotziek eskatu diote Idazkariari finkoak diren gasto eta sarrerak prestatzea 2014ko aurrekontua egiteko.

15.-ETXEGABETZE-EGOERAN DAUDEN EKINTZA PROTOKOLOA.

Pasa den urriaren 11n, Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak hitzarmena sinatu zuen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Nafarroako Gobernuarekin, hipoteka gauzatzearen edo errenta ez ordaintzearen ondorioz etxegabetze-egoeran dauden eta arrazoi ekonomikoak nahiz familiarrak tarteko gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko ekintza-protokolo bat ezartze aldera.

Aztertu ondoren aipatutako hitzarmena.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Aipatutako hitzarmen proposamenari baiezkota ematea baino kritika hauek eginez:
 - Administrazio desberdinen arteko koordinazioa gai teknikoa dela.
 - Hori adabaki bat dela eta ez duela irtenbiderik ematen.
 - Gizarte-egoera ahulean dauden kasuetan prozesua gehienez 10 egunez gelditzen da gizarte zerbitzuei abisatzeko, hauek baloratu eta eta behar den irtenbidea emateko. Hori guztia prozedura gelditu gabe.
 - Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa udalei zuzentzen da. Kasu gehienetan gizarte zerbitzuak dauden mankomunitateetara zuzendu beharko zen.
 - Ez da definitzen nork eta nola aurkitu, konstatatu eta epaileari jakinarazi egoera hortaz. Baloratuko da oinarritzko gizarte zerbitzuei igortzeko aukera.
 - Parte guztiei berdin kontsideratzen zaie, nahiz eta hala ez izan.
 - Hartzen duten konpromiso handiena hauxe da: alarma sumatzen denean (nahiz eta ez jakin nork joko duen) gizarte zerbitzuetara abisatzea. Hauek behar bezala funtzionatu, aurretik ikusia beharko zuten egoera ahul hori.

16.-UDALAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Udalagintzarako Udaleko ordezkaria Koldobike Gorostiza Uriguen andrea izendatu zen 2013ko maiatzaren 3ko bileran.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udalagintzako ordezkaria Mikel Leiza Etxeberria jauna izendatzea, Koldobike Gorostiza Uriguen andrearen ordezkari.

Bertzerik gabe, gaueko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.

